

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko uztailaren 16a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Lizarra • Musika tradizional eta folklorikoak entzungai osteguna arte.

Mikel Aizpuru • «Euskara unibertsitatean sartzeko lan dezente dago oraindik egiteko».



Artaxoan ere euskal leku izenak

Jose Maria Jimeno Jurio historialariak eta Patxi Salaberri filologoak 'Artaxoa. Euskal toponimia' liburua a
urkeztu berri dute. Jimeno Juriok bere jaioterriko leku izenen bilketa handia egin du, eta, euskara
XIX. mendean galdu zen arren, hainbat toponimok ez dute dudarik uzten Artaxoaren iragan euskaldunaz:
Akerbelarra, Bidezarra, Berriturria edota Enekoargedasko bidea...

Lizarra • Elkarguneak

Datorren astean musika tradizional eta folklorikoen jaialdia ospatuko da

Astelehenean hasita eta osteguna bitarte, hainbat eskualdetako lau talderen musika entzun ahal izanen da musika tradizionalen jaialdian. Kontzertuak San Nicolas Plazan izanen dira, gaueko hamarretatik aitzina.



Alboka taldea izanen da Euskal Herriko ordezkaria Lizarrako Musika Tradizionalen Jaialdian.

• ARTXIBOKOA

Berriro ere ailegatu da uztaila Lizarrarat eta berekin batera kultur ekintza aunitzetaz gozatzeko aukera. Hilabete osoan zehar, erakusketak, hitzaldiak, ikastaroak eta abar luze bat izanen dira Ega ibaia zeharkatzen duen hirian ikusgai eta entzungai. Ekintza guzti hauen zerrendan datorren astean ospatuko den Ertaroko Ikerketen Astea da aipagai; bertan txanponen historia ikertuko dute aurten hainbat adituk. Eta hitzaldi teorikoak laguntzeko Musika Tradizionalen Jaialdian edizio berri bat ospatuko da San Nicolas enparantzan iluntzeko hamarretatik aitzina. Bertan eskualde ezberdinetako lau talde entzun ahal izanen dira; Alboka, Euskal Herriko taldea; Alturas, Afro-Peruko musika egiten duen taldea; Clau de Luna, Cata-

lunyakoa eta Benito Cabrera, Kanariar irletako abeslaria.

Alboka taldea 1994. urtean sortu zen, hiru musikari euskaldun eta bertze irlandar baten elkarrekin topo egin zutenean. Lau nortasun ezberdin izan arren, Txomin Artola, Josean Martin Zarko, Joxan Goikoetxea eta Alan Griffinek talde bat eratzea erabaki zuten era instrumental eta akustikoan musika tradizionala biltzeko eta interpretatzeko. Kitarra, mandolina,

bouzoukia, ttunttuna, akordeoia, gaita, txirula edo kromornoen batura, euskal kantutegi oparoarekin uztartzen dute. Albokak euskal folkloaren barruan berrikuntza nabariak lortzeaz gain dagoeneko bi diska kaleratu ditu, aurkezpenekoa eta 'Bi beso lur'. Azken honetan lankidetzaz aipagarriak ezezik, estiloa eta musika tresnen sendotzea dira nagusi. Hori egiaztatzeko aukera izanen da astelehenean Lizarran.

Asteartean, Alturas izanen da entzungai. Perukoa izatez bertako eta Afrikako musika uztartzen ditu taldeak, instrumentoen erabileraren bidez. Charangoa, kitarra, perkusioa, quena eta zanpoñak dira, bertzeak bertze, jotzen dituzten tresnak eta halaber, kantatu eta dantzatu egiten dute. Alturas Hego-Amerikako talderik garrantzitsuenetakoa da; izan ere, urteak daramatza Peruko musika hemendik harat barreiatzen.

Clau de Lunak asteazkenean eskeiniko du bere kontzertua. Talde honek Catalunya-ko musika tradizionala berreskuratu du eta erritmo berriekin nahastuz munduko musikak deitutako atalean sartu dira. Azken kontzertua Benito Cabrerak eskeiniko du ostegunean. Honek Timplea, kanariar musika tradizionala, kantatzen du melodia goxoak sortuz.

→ Kristina Berasain

metropoli forala

FELIPE RIUS



Ilunpeen bihotzean


Eguzkia egunero ateratzen da, baita Iruñean ere, The sun also rises, hau da, festa, festa, jaia eta abar kristona da, baina uztailearen hamabostan iristen denean badirudi batzuen zat dena bukatzen dela, festaren ondorengo depresioak harrapatzen ditu eta, Hemingwayren lanak alde batera utzita, Joseph Conraden ilunpeen bihotzean sartzen dira bete-betean, pasiloaren beste aldean Marlon Brandoren aurpegia duen berrero bat zain dutelarik. Gogorak dira San Ferminen ondoko momentuak, ikaragarriak, batez ere astebetetzat gaztaroaren egunik onenetara itzultzeko aukera zutela sentitu dutenentzat. Peter Punkek errealtaterik gordinena aurkitu du etxean uztailearen hamabostean, bat-batean konturatu da bi ume dituela eta aspirinak aspaldian agortu zirela. Apokalipsis nau. Aurrean

urtebete barru beste sanfermin batzuetan itsasoratuko diren hilabete amaigabeak daude, eta afarien eskailerak -urtarilaren lehena, otsailaren bigarrena eta gainerakoak- ez du apenas oinazea arinduko. Bat baino gehiago ikusi ditut nik bazter batean negarrez egunerokotasunari berriro heldu behar diotelako, parrandak oroitzen atsegin eta aldi berean mingotsak besterik ez direlako, egun askotan ez dutelako beste diana bat dantzatzeko -dantzatzeara zerbait esateagatik-. Ni tipo gogorra nauk, baina goizeko zazpiak laurden gubixtan Pamplonesaren musika entzuten dudanean negarrez hasten nauk haur bat bezala, esan zidan lehengoan bi metroko gizon serio batek, eta ongi dakit momentu hauetan ere negarrez ariko dela komunean seme-alabek ikus ez dezaten. Kaleak kristalez eta zaborraz bete dira egun

hauetan, baina gatazkaren ondorengo benetako paisajea sanferminzaleen barrenean dago, agian urte osoan berriro hartuko ez duten alkohol overdoziak eragindako irudien arrastoetan, goizalde fresko batean airean harrapatutako begirada baten oroitzen, lo faltak sortarazitako aluzinazioetan. Hemingway aldarrikatzen dugu urtero festak iristen direnean; hala ere, hobekien ulertu gintuen idazlea Joseph Conrad da, eta berarekin batera Francis Ford Coppola zinegilea, haiek kontatu baitziguten nolakoa den festaren ondorengo, zer gertatzen den gainerako hirurehun eta berrogeita hamasei egunetan. Ibaian gora joan behar dugu arrisku guztiei aurre eginez, azkenean burua moztuko digun Marlon Brando batekin topatzeko. Ongi etorri ilunpeen bihotzera, lagunok.

Baztan •

Baztandarren bilgune



Xabier Larraburu

Euria

Gure hiri barnean sortzen den abere ikulu txiki hortara hurbiltzea gustukoa dut. Orain euria ari du. Munduko leku guztietan bezala, Iruñean ere euria egiten duenean zoko-moko guztietan egiten du euri, eta horrela blai eginda gelditzen dira espaloiak, zuhaitzen hostoak, kotxeak eta aterkirik gabeko jendeak. Baina San Fermin festetan Iruñeko berezko zoko-moko horietaz guztietaz aparte badira beste leku batzuk non euria egiten duen. Zezenen adarretan esate baterako. Hori gauza kuriosoa da zeren Iruñean festetan soilik egiten du euri zezenen adarren gainean. Orain ekaitza ari du, gaua da, kaleen iskanbila baretu da eta krixton trumoiak sentitzen dira hor zeru gainean. Santo Domingoko ikuluetan erortzen ari den euri horrek zezenen gorputzekin egiten du topo. Normalean hor erortzen diren tantak zuzenean lurraren kontra desagiten dira. Normalean. Orain ez. Orain gorputz handi eta epel batzuen kontra jotzen dute baina euri tantak ez dira harritzen. Epeltasunarekiko edo zementoarekiko indiferenteak dira. Beraiei bost zeren kontra egiten duten. Espaloia edo Miuraren marka. Zezenak ere euriarekiko indiferenteak dira. Ez dute babesik bilatzen eta ikuluen iluntasunean zutik jarraitzen dute.

Kanpotik begirata ez da asko ikusten argirik gabeko ikuluan.

Hesia dago, bustia hau ere, eta kalea, bazterreko errekatxoarekin. Ura da mugitzen den gauza bakarra. Pixka bat harantzago eta farolen argi laranja pean, zaindari lanetan dauden munipa zirriboratu batzuk ikusten dira, hauek ere bustiak. Dena dago geldirik. Ematen du betiko dela gelditasun hori. Baina ni esate baterako banoa. Ezin da asko ikusi hemen. Kanpotik begirata adarren txuria bakarrik igarri daiteke, lur beltzean botatako labana bustiak. Eta noizbehinka, etzandako idi handi horiek burua mugitzerakoan, joare baten soina, euripean eta hesien artetik lehor ateratzen den gauza bakarra. •

→ Jon Abril

Santiago Egunaren aitzineko igandean egin ohi da Baztandarren Biltzarra, Elizondon. Antolakuntzak hala erabakita orain bi urte egin ez bazen ere, joan den urteko esperientziaren ostean Elizondok berriz ere aterpetuko du Baztandarren Biltzarra.



Orga lehiaketak leku garrantzitsua izango du aurtien ere Baztandarren Biltzarrean.

• ARTXIBOKOA

EKITALDIAK LARUNBATEAN HASI-KO DIRA. Gure eskualdean gutitan ikus daitekeen ikuskizun batez gozatu ahal izanen da, zestapunta partidua jokatu baita arratsaldeko 18:00etatik aitzin Elizondoko pilotalekuan. 20:00etatik aitzinera, Zizkuitz txaranga karrikaz karrika ibiliko da arrats osoan, eta 00:30etan, berriz, dantzaldia izanen da Elizondoko plazan, Kristina eta Amaia trikitilariekin.

Ekitaldi nagusiak igandean izanen dira. Baztandar guz-

tien bilgune izateko antolatzen hasitako bestak mugak gainditu eta Euskal Herri guztitik etorritako jendea bildu ohi du. Goizean, laxo partiduak jokatu dira Elizondoko pilotalekuan; tartean Baztan-Malerrekako txapelketaren barreneko partidua. Laxoa bi bailara hauetan baino ez da jokatzeko egun.

Ekitaldirik garrantzitsuena eta besta eguneko ikusminik handiena bereganatzen due-

na orga lehiaketa da, ezbairik gabe. Herri guztiek ez dute egiten orga, baina herri gehientsuenek aurkeztu ohi dute beren orga Elizondoko karriketan. Normalean, lehenagoko bizimoduari lotutako orgak izaten dira, nahiz eta batzuek, gaiaren aldetik, gaurkotasunarekin zerikusia izaten duten. Antolatzaileren asmoa da aurtien bertze urteetan baino orga gehiago biltzea. Egurdiko 12:30etatik

aitzineraz bazkaritara elkartuko dira baztandarrak, merkatu zelaian. Bazkalondoa bertsolariak alaituko dute, eta ondotik, urteroko moduan, Erramun Martikorenaren kantaldia izanen da, merkatu zelaian bertan.

Herri dantzek hartzen dute tarte arratsalde partean, eta ondotik Kristina eta Amaia eta Etzakit taldeekin dantzaldia izanen da Elizondoko plazan.



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Perurenaren domina

Nafarroako Gobernuak kirolaren munduan egindako lana saritzeko Urrezko Domina eman dio aurtien Iñaki Perurena harrijasotzaileari, eta, hori dela eta, **Ttipi-ttapa** aldizkariak elkarrizketa egin dio leitzarrari bere azken zenbakian. «Kirolari bat kirola egiten ari denean ez da sari baten bila aritzen. Ilusioa egin diti nifaz oroitzeak, baina batez ere, Nafarroan herri kirola badaukagula, bizirik dagoela eta euskal kultura ere badela kirolaz gain, hori erakutsi behar dugu. Herri kirola kontuan edukitzeko izan dadila sari hori. Neretzat sari politena herri batera joan, harria jaso, eta

norbaitek, 'joño, oraindik nahiko ongi hago' esatea da», azpimarratu du Perurenak **Ttipi-Ttapa**ko orrietan.

Hasierako uneak gogoratu ditu, halaber: «Ni hasi nintzenean hanka hutsik ibiltzen ziren harrijasotzaileak eta entrenamenduak ere neronek presatzen nituen, halterofilia liburuak ikusiz. Nik egin nituen hanka sartzeak Inaxio semeak ez egiten saiatzen ari naiz. Etxean aizkoran aritzea bai, baina harria ez zuten ikusi nahi ere. 14-15 urterekin harria jaso nahi nuen baina ez nuen haririk. Lehendabiziko harriak neronek landu nituen men-

dian, ixilean».

Semeaz, berriz, honela mintzo da Iñaki Perurena harrijasotzailea: «Markak hor daude, harrijasotzaile handi baten markak dira. Gainera, kontuan hartu behar da bere gorakoa 1,90ekoa dela eta harria jasotzen dabilen inork ez duela horrelako alturarik. Orduan harriak ere nahiko motxak gelditzen zaizkio. Harriak jasotzailearen neurrikoa behar du eta orduan, Inaxiok altuagoak beharko ditu. Hori egiten hasten denean oraindik hobekiago jasoko ditu», azpimarratu du leitzarrak.

Artaxoaren jatorri euskalduna aztergai

'Artaxoa. Euskal toponimia' liburua aurkeztuko da gaur Artaxoan

Artaxoako liburutegian aurkeztekoa da Jose Maria Jimeno Jurio historialariak eta Patxi Salaberri filologoak Nafarroako herri honen toponimia euskaldunari buruz egin duten liburua. Liburua Artaxoako herriari eskaini nahi izan diote bi egileek, herri honek «bere nekazaritza joritasuna eta altxor arkeologiko eta artistikoez gain, bere euskara bitxia eskaintzen baitio kultura unibertsalari».

JOSE MARIA JIMENO JURIOK BERE JAIOTERRIAREN jatorri euskalduna aztertzeo asmoz ikerketa lan izugarria egin behar izan du. *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* bilduma egin zuen historialari eta hizkuntzalari taldearen zuzendari lanetan jardun ostean, eta Iruñerriko toponimia *Onomasticon Vasconiae* bere lanean aztertu ondoren, artaxoak honek aspaldidanik zuen buruan bera jaiotzen ikusi zuen herriaren toponimia jorritzea. Datu bilketa eta artxiboko lana berari egokitu zaio osotasunean, eta datu guztiak lortutakoan sartu zen lanera Patxi Salaberri filologoak, Jimeno Juriok, barrez, esan bezala: «Nik datuak bildu besterik ez dut egin, gero Patxi esaten zidan zer zen euskarazkoa, zer ez edo zer zen afrikarra eta kendu beharrekoa».

Jimeno Juriok aurrez eginiko lanetarako bildutako datu asko erabili ahal izan ditu lan hau egiteko, *Artaxoako Erdi Aroko Agriklanerako* lortuak adibidez, baina lehen eginaz gain ordu franko sartu behar izan ditu Nafarroako Agiritegi Nagusian eta Yabar Andueza sendiak erabiltzen utzi dion artxibo partikularrean. «Artxibo hau zoragarria da eta gaur egun erabat galduak dauden toponimoen arrastoak aurkitu ahal izan ditut bertan», esan zuen Artaxoako historialari ospetsuak

esker oneko hitzez.

Gaur egun Artaxoan ez da gehiegi nabari euskal zaletasunik, baina liburuaren bi egileek esaten dutenez «hizkuntza politikarekin nahastu izan delako gertatzen da hau batik bat. Inork ezin dezake ukatu guk egindako lanaren egiatasuna, eta artaxoarrak ez dute dudatan jartzen euren jatorri euskalduna, nahiz eta orain ez sentitu euskaldunak. Gauza bat garbia da, ikertzaileok ez dugu ezer asmatzen, eta Akerbelarra, Ardantzemakurra, Beikorraleda edo Arrimakurrukoerkaleda bezalako leku izenak daudenean zaila da honi kontra egitea».

Leku izenen eraldaketa

Normala denez, eta euskara Artaxoan galzten joan den neurrian areago, gaur egun leku batzuk ezagutzeo erabiltzen diren izenak jatorrizko izenak eraldatu ostean sortutakoak dira; Ardantzemakurra toponimoa, adibidez, gaur egun Zamakurra bezala ezagutzen da eta gaur egun Kaskiturria deitzen den parajeak jatorrian Enekoargedasko iturria izena edukiko luke.

Toponimoen normalizaziorako lanak aspaldidanik hasiak dira Nafarroa osoan, baina jatorrizko toponimoa dokumentatzeko ez du esan nahi hitz hori normalizatu edo ofizializatu behar denik, «nahiz eta Ardantzemakurra izan jatorrizko izena, XVII. mendean Ardantmakurra erabiltzen bazen, ezin da lehenagokora bueltatu. Kaskiturriaren kasua oraindik eta garbiagoa da: orain Enekoargedasko iturria normalizatuz gero, arazo handia izango zen herrian, nekazarien mapa katastraletan eta abar».

Kasu kuriosoa da benetan azken toponimo honen eboluzioa. Eneko Argedas, XIII. mendeko artaxoar famatu bat izan zen;

glizon honen bizitza ahazten joan zen era berean, eta euskara galtzen zihuan heinean, herritarrek toki honi Nekasiturria deitzen hasi ziren eta geroago orain erabiltzen den Kaskiturria. Patxi Salaberriren ustez «horrelakoak oso gauza normalak dira, euskarak bizirik jarraitzen duen herri askotan ere hitzak mozteko joera handia baitago, eta alde horretatik garbi dago Enekoargedasko iturria ez dela oso forma ekonomikoa. Dena den oso toponimo polita da, antroponimo batean oinarritzen delako; gainera gaur egun Eneko izena berreskuratu da baina XVII. mendean erabat galdutako izen bat da».

Edutezko genitiboa

Artaxoako toponimo euskaldunek herri honetan garai batetan hitz egiten zen euskararen berezitasunak ere argitu dituzte zenbait kasutan. Edutezko genitiboaren kasu bitxia da behintzat, eta linguistikoki garrantzitsuenetako bat, Artaxoan Juana-ren Gortea, Gilen Gortea edo Mariaren Gortea esan beharrean Juanaren Gortea, Gile Gortea eta Mariaren Gortea erabiltzen baita, edutezko genitiboak berarekin daraman hizkia galduz. Patxi Salaberriren ustez

Jose Maria Jimeno Jurio eta Patxi Salaberri, liburuaren egileak.

JOXE LACALLE

Tafallan eta Mendigorrian toponimia erromanikoa da nagusi aspaldidanik; Artaxoa muga linguistikoki bat da zentzu horretan

«ezin da esan hizkia jan egiten zutenik, Mitxelenak esaten zuenez -REN atzikiaren forma zaharra -RE baitzen, horrela ulertuko litzateke nere, gure, edo zure edutezkoen izaera ere. Oso forma arkaikoa da hau, aurrez behin edo bi aldiz bakarrik dokumentatua eta Uxue, Eslaba, Gares eta gainerako inguruko herrietan aurkitu ezin daitekeena».

Toponimia euskalduna edukitzea ere ez da inguruko herri guztien ezaugarria. Uxuen jaiotako filologoaren esanetan, «Tafalla aldera eginez gero, toponimia guztiz erromanikoa baita XV. mendean geroztik, eta Mendigorrian ere, izenak beste zerbait adierazi badezake ere, toponimia euskaldunak ez da. Artaxoa muga linguistikoki bat izan da zentzu horretan».

Banaketa ziurtatuta

'Sociedad de Corralizas y Electra de Artajona' elkarteak 'Artaxoa. Euskal Toponimia' liburua artaxoarren artean erabat dohainik banatzeko ardura hartu du, eta alde horretatik oso gustura agertu zen Jose Maria Jimeno Juriok:

→ Asier Legarda

Toponimoen bilakaera

Jatorrizkoa Gaur egungoa Ofiziala



Akerbelarra Akabelarra Akerbelarra




Arantzedia Lanzedia Arantzedia



Ardantzemakurra Zamakurra Zamakurra



Ferrangortea Farangortea Ferrangortea



Jaunazeritzea Janazuzea Jaunazuzea

Erriberako bi aldizkari berriren aipamena

Ikasturte amaiera honetan bi aldizkari guztiz diferenteen zenbaki berriak agertu dira Tuteran aldean; alde batetik, *Merindad de Tudela* kultur elkarteak Remacharen mendeurrena dela eta atera berri duen zenbaki berezia aipatu beharra dago; bestaldetik, Argia ikastolaren *Iturri Eder* paperaren hirugarren zenbakia karrikan dugu dagoeneko.



1 IAZTIK, ETA BEREZIKI TUTERA aldean, Fernando Remacharen mendeurrena ospatzeko izan diren ekitaldi purrustari amaiera emateko edo *Centro de Estudios Merindad de Tudela* kultur elkarteak aldizkari berezia atera berri dute musikari tuterarra gai bazarizat harturik. Isilaldi luzetxeak dena, eta badirudi indarberiturik badatozkigula harzara, bada, udaren bueltan, zenbaki berria aurkeztu asmo baitute, bederatzigarrena izanen dena alegia. Elkar-
tea 1987. urtean sortu zen, eta aldizkariaren lehenbiziko zenbakia handik bi urtera atera zen, 1989. urtean hots, Pamie-la argitaletxearen eskutik. Lehenbiziko zenbaki hartan aski argi geratu zen zein nolako il-
doa goldatuko zigun paper berriak, eta estreinakoz euskari argi zirrikitua ireki zion argi-
talpen serioak gure Erberean, artikuluen bukaeran testigan-
tza hutsezko euskarazko la-
burpen undatsez aparte, Gil Beraren kolaborazio batekin, non asmoen aurkezpena egin baitzigen: «Aldizkari hau, per-
tsonal joera batzuen islada eta bertzte pertsonal joerari zuzen-
durik denaz bezainbatean izan-
nen da kultur fenomeno bat. Bertzenaz, parroki orria baino-
ago ez da izanen. Lehenagoan garelako hona hau». Urtez urte atera izan da aldizkaria, 1989. urteaz geroz eta esan bezala, alabaina 1995. urtean kale egin zigun lehenengo aldiz, eta zazpigarren alea 1996. urtean atera zen. Berdin gertatu zi-
tzaigun lazkoan, eta Remacha-
ren omenez ateratako zenbaki berezi hau pasa den urteko ospakizunen barruan koka ba-
dezakegu ere, ezin da ukatu aurkezpena aurreko ekainaren 30ean egin zela, nonbait eta bestalde, trangoa gainditu de-
lako seinalea ere.

Zenbaki berezi honetan lau kolaborazio baizik ez ditugu, eta urritasun honek, barruko mami gozoaren erakusgarria ez den arren, bai gorago aipa-
tu trangoaren sakonera zora-
biogarriaren tamaina salatzen digula arazki. Edozein modu-
tan ere, badugu lau trinkoa eta maratza, baikor izateko modukoa. Hasterako lana, omenduaren beraren alaba den Margarita Remacha Gon-
zalezek egin da; honek musi-
kalariaren biografia eskaintzen digu, zenbait argazki-
rekin eta guzti, aitari buruz jada aurretik utzi zuen *Fernando Remacha: una vida en armonialiburuaren* laburpena baizik ez dena. Bigarren arti-
kulu luzea, Remacharen lana ezin hobe ezagutzen duen Marcos Andrés Vierge irakas-
learena dugu, «Selección de documentación en torno a Fernando Remacha», hemero-
tekako txinurri-lan zehatza. Hirugarren idazkia, Fernando Pérez Olloren lan ederra dugu, Tuterako musikalaria Nafarroako bizitza kulture-
an kokatzeko saio ezin inter-
resgarriagoa, ene begikoz, lauretan helmen zorrotzene-
koa. Azkenik, Remacharen beraren ikaslea izaniko Pedro de Felipe Alayeto murtxantea-
rraren lana dugu, «Sistema pedagógico para compositores a partir de la Cantata Jesu-
cristo en la Cruz de Fernando Remacha», izenburuak berak dioen gisara, lan zailxea, musikariendako egin berezi-
ki.



2 Bestelakoak dira, ordea, Argia Ikastolaren asmoak *Iturri Eder* aldizkaria kaleratze-
rakoan, haatik, ezin uka za-
balpen ozeneko papera dugu-
la, helmen luzekoa. Urtebeteko denbora higitu da lehenbiziko alea atera zenetik, eta nabar-
menak dira hiru zenbakien arte-
teko aldeak: orri kopuruaren gehitzea, kolorearen sartzea, maketazioa, kolaboratzaileen ugaritzea, aukeratutako gaien interesa... Honakoa, ikastole-
tan hain ohikoak diratekeen beste barne-paper horietako bat dela ukatu gabe, berebiziko kalitatea duen lan baten aurrean gaudela aisa soma daiteke, maita-
sunez bezainbeste, buruz egin dagoena.
Erriberako Ikastolaren egoi-
tza ez dago Tuteran, ezagun denez, Fontellasen baizik, eta hiri honen izenak berak aski garbi salatzen duen moduan, Barde lehorren ondoko lur haue-
tan ura da nagusi, horren lekuko Ebro uhaldea, Bokale ezaguna, Lodosako ubidea, edota iturriez mardo mintzo zaigun toponimia: Fontebella, Río Madre, Fuente del Olmo, Fuente Lizar... azken honetan pausatzen da Ikastola, Mingo-
txako baratzen ondoan, eta euskara freskoko iturria den honetan, zein egokiago *Iturri Eder* bera baino. Hirugarren zenbaki honi Ikastolaren bar-
ne funtzionamendua-ren gai-
neko kontu batek ematen dio hasiera, beste ikastoletan arrotza ez dena, lehendakari-
tza hauteskundeak hots; jarraian 'Txoko Pedagogikoa' izeneko sailean ele-anitz proiektuaz luze dihardu David Lachman Argiako irakasleak, eta segituan ikasleek berek taxutu lanak zein Ikastolari doazkion berri ugari zaizkigu irakurgai.



Gerezi hexurra falta!

Gogoan dut. Eskola bukatze aldera hasten ziren gereziak hontzen. Horregatik izaten genuen dobleko poza. Heritik etxerako bidean, ale bakan batzuk, artean txoil hondu gabeak, izaten genituen garaiaren salatari, batipat zo-
zoek mokoka erdizulatu eta lu-
rrera boteak, Fermiñeneko itu-
rrian, Otsondoko buruan, Ar-
tantxuko zokoan... «Hara, hasi dira gerezik hontzen!».

Gereziondoen azpitik pasae-
ran, irrikaz begiratzen genien behit-
tik goiti, hostape berdean nonahi ageri ziren ginga mordo zurigorriei, desapioka: «e-
on la-
sai, eon, audio izin ttu ta arra-
saldek libre!». Belaxe, goizetik bakarra hasten zen eskola, eta eguerdian etxera heldu ginela, utzi lurrean maletak, marmi-
tak, ogiak eta gainean gene-
karzkin guziak, eta hantxe ari-
tzen ginen harrapazka.

Aurreneko saioa lurretik bertatik: gerezi mordo gehi-
ko kargatu eta lurrerantz habaildutako bazterradarrik bajuenak eskua luzatuz salto-
an harrapatu nahian. Hurrena harunzko koskagainen bate-
tik: puntan kakodun zume luzanga batekin beregan tira batek, eta besteak alerik ede-
rrenak bildu hatzaparka, lagunari besoetako indarrak ahitu baino lehen. Zenbat adar ote dugu hala hautsia, gehiegi kakotuz! Bai gorde ere usu, zokoren batean, jabeak ez ikusteko.

Lurretik zazpi ahaleginak egin ondoren, arbola gainera abiatzen ginen. Lagunik poto-
loena jarriko zen bizkar eman-
da arbolaren kontra, bi esku-
txokoak lotu zilborrondoan, hatzak elkarri sardean guru-
tzatuz, eta lagunetan arinenak edo trebe-
nak han ipiniko zion aurrenako hanka, astogainera igotzeko bezala, eta beste han-
ka bizkar gainera paratuz, han dabil katazka behetiko ada-
buruan! Handik goiti, katago-
rriak bezala kasik, adarrez adar galdurreraino. Hura mahuka gurea, alerik ederre-

nak tarteka beren hezur eta guzi irentsiz!

Behean gelditzen zirenak, motelskonak edo bildurtienak, jakina, beti kejo: «Jolinas, guri re bota ale batzuk e! Biar ez ga yarriko bestela biatzak guruz-
tuta astotako!». Noizetik noize-
ra adar mutur batzuk hautsi eta beren gerezi mordoekin bo-
tatzen nizekin goitik, baina, lautatik hirutan, biderdian gel-
ditzen ziren adarretan trabatu-
rik, bihotz ttiki galduen iduri, eta «botzeko geio jobar, aixti-
kok eztiala alletu lurreñol», or-
duan eta negartiago lurreko la-
gunak.

Haiek ibilerak, gureak, ez-
painondo guzia eta ator xur-
laren kolkoa gerezi mantxaz mo-
retua genuela! Amak ez zigun besterik esaten: «Eurdiko be-
ron ez yan gero gerezik, tripa-
miña ta bettikoa ematten do-
ta!». Ez alferrik. Gero lanak han, pekatua gordetzen: bide bazterrean bertan uzten baige-
nituen kakalarri arrastoak; ge-
ro, belaxe lurtzen zen kakeria, baina hexur mordo ez: hantxe gelditzen zen lur zola beltzean, guk deskuídoan irentsitako bihotz ttiki haien eskeletoa iduri, gure pekatu larriaren sa-
latari.

Zeinen imajin polita, lapur-
tutako guzia segituan kakeri-
tan botatze hori, eta gainera, auzo guziaren salatari, egun sailean hexur bihurturik han-
txe bertan iraute hori! Batek ume umetatik ikasten zuen or-
duan beremodu pentsatzen, fi-
losofatzen, eta eskolatik etxera bitartean endemas. Orain dena eskolan edo etxean ikasten da. Bidea ukatu zailo haurrari, Ma-
txadori burla eginez, eta ani-
mik ez dut sumatzen auzoko gereziak lapurtzen; etxean ber-
takoak ere guraso haurtuok ez baditugu biltzen, bertan ustel-
tzen baitira, bihotz gorri ttiki urkatuak iduri.

Baina formak ez nau hain-
beste xoratzen, barrango hexur enigmatiko horrek baizik. Ana-
logiz ohartu nintzen ume ume-
tatik, zerbait faltako zuela beti nere bihotz ttikiak: hexur bat.

• Motxorrosolo •

Ziria

Mugiezinak

Etengabeko autokritikarena garai berriei aurre egiteko te-
norean. Inguruan dituzten mugimenduek erakutsi legez, pausoak eman behar dira, inoiz apobidea hautatzen bada ere. Ez dirudi asko ikasi dutenik; menturaz, ez dute ikasi nahi

Mikel Aizpuru



UEUko zuzendaria

«Euskara unibertsitatean sartzeko lan dezente dago egiteko oraindik»

Astelehenean hasiko dira Iruñean Udako Euskal Unibertsitatearen 27. ikastaroak, eta aurtengoan ikastaro berriak izanen dira Iturrama institutuan. Bertako zuzendari Mikel Aizpuru baikor da, eta UEUren hasierako urteetako itxaropena berriro ere zabalduz doala dio. Oraindik lan handia dagoela uste izan arren, unibertsitatean euskararen presentzia gero eta nabarmenagoa dela dio. Gainera, gero eta diru laguntza eta hitzarmen gehiago dituzte, eta honek ikastaroen finkatzea bermatu du.

AZKENENGO URTEA DU MIKEL Aizpuru zuzendaritzan eta hasiera-hasieratik ezagutzen du UEUk egindako lana. Orain, euskal gizartearen zati handi batek euskararen tokia gero eta garrantzitsuago izan dadila eskatzen duela dio.

■ **Euskal Unibertsitatea egituratzeko baldintzak prestatzea izan du helburu; hori lortzeko bidean, nolako aurrerapausoak egin dituzue orain arte?**

UEU sortu zenean Euskal Herriko unibertsitate bakarrak Deustukoa eta Nafarroakoa ziren. Ordutik Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta iparraldean hainbat fakultate sortu dira. Egoera dezente aldatu da; euskara unibertsitatean sartzen ari da. Euskal Herriko Unibertsitatean, adibidez, nabarmen. Nafarroako Unibertsitate Publikoan atal batzuetan sartu den arren asko falta da oraindik, eta besteetan ezer gutxi egin da. Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen unibertsitatean euskara erabili daitezen, baina UEU sortu zenean, bai. Hala ere, lan dezente dago egiteko oraindik, ez jendea konbentzitzeko baina bai behartzeko edo azaltzeko unibertsitatea euskaraz landu beharra dagoela. Ez bakarrik euskaraz, baina euskaraz ere bai.

■ **Astelehenean Iruñeko ikastaroak hasiko dira. Nolakoak izanen dira?**

Iruñean ia guztiak berrikuntzak izaten dira. Antropologia edo fisika ikastaroak urtero egoten dira, baina normalean programa aldatu egiten da. Sail guztietako programek ez dute aurreko urteetakoekin zerikusirik.

■ **Eta berrikuntza nabarmenik ba al dago?**

Aurtengoan, beste urteetako sailez gain, ikastaro berriak daude. Literatura ikastaroa adibidez, iaz ez zen eman, eta kazetaritzakoa ere Iruñean ez zen izan.

■ **Eta berrikuntza hauek guztiak direla-eta ikasle, irakasle eta langile gehiago joango al dira UEUko Iruñeko ikastaroetara?**

Orain arte ditugun datuen arabera, iaz baino jende gehiago egongo da. Gainera, matrikulazio epea bukatu den arren Iturramara oraindik ere jende gehiago etorriko dela pentsatzen dut. Dagoneko iaz baino jende gehiago dago, bai ikasle moduan eta baita irakasle moduan ere.

■ **Ikastaroak, baliabide ekonomikoei dagokienez beheren, egoera hobean antolatatu dituzue, ezta?**

Bai. Batetik, balorazio ekonomikoa iazkoan baikorra goa izan zen, eta aurtengoan

ere diru laguntza gehiago izango ditugula espero dugu. Dena den, oraindik ez dakigu hainbat erakunderen diru laguntzak zenbatekoak izango diren; ikastaroak bukatuta jakiten da hori askotan. Gainera, ikasle kopuruak ere gora egin du eta horrek ere ekonomikoki arazorik ez egoten lagunduko du.

■ **Eta laguntzak bermatzeko hitzarmen ekonomikoak egitea lortu al duzue?**

Nafarroako Gobernuarekin 1990etik aurrera hitzarmen bat dugu. Eusko Jaurlaritzarekin ere iaz sinatu genuen, eta aurtengo negoziatzen ari gara. Eusko Jaurlaritzaren gabe dago, eta horrek hitzarmena sinatzea zaildu du.

«Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen unibertsitatean euskara erabiltzea posible denik, baina, UEU sortu zenean, orduan bai»

Hala ere, diru laguntza izango dugula uste dugu.

■ **UEUk egiten duen lana aurrera ateratzeko nola antolatzen duzue?**

UEUk lan talde finkoa du. Une honetan bi talde ari dira; batetik, talde profesional bat, urtean zehar horretan lan egiten duena; eta bestetik, sailburuak eta talde eragileko kideak gaude, musutruk lan egiten dugunok, era militantean; UEUko lana gure lanetatik kanpo egiten dugu.

■ **Eta azken urteotan UEUk izan duen lan gorakadari aurre egiteko lanpostu berriak sortzeko beharrik izan al duzue?**

Iaz iparraldean langile bat hartu genuen hango azpiegitura indartzeko. Egindako la-



XOUSA SIMAL

na hobeto burutzea eta urtean zehar udako ikastaroek jarraipena izatea nahi genuen, eta horretarako langile bat behar genuen. Hori izan zen lanpostua sortzeko arrazoiak. Egungo burokratizazioak ere talde profesionalaren indartzea eskatu digu.

■ **Beste hainbat erakunderen Ikasgu-Nagusia euskarazko unibertsitate-ikastetxea eratzeke proiektuan ari da UEU, zer da zehazki eta zein eginkizun izanen du?**

Oraindik lanean ari gara eta ez dugu gauza gehiegirik esan nahi; gauzatzeke dagoen zerbait da. Nolanahi ere, Ikasgu-Nagusia zerbait osagarria litzateke, ez litzateke inolaz ere euskal unibertsitatea izango. Nagusiki -baina ez bakarrik- euskaraz funtzionatuko duen ikastetxea izango litzateke. Alde horretatik osagarria izango litzateke.

■ **Eta EIRE euskal irakasle-en elkarte sortu berria?**

Euskal Herria txikia da, baina, askotan arazoak egoten dira jende desberdina biltzeko. Euskarazko irakas-kuntza bultzatzeko asmoz, unibertsitate desberdinetan euskaraz lanean ari diren irakasleak biltzea zen EIREren sortzaileen asmoa. Asmo horrekin sortu da eta UEUko kideak ere egongo dira.

→ Miren Iriarte

soslaia

Mikel Aizpuru historialaria eta Historiako irakaslea da. 1996tik Udako Euskal Unibertsitateko zuzendari izan da, baina aurtengoan postua utziko du, lau urtetik behin aldatzen baitute kargu hori. Aizpuru kasualitatez hasi zen UEUn lanean, lagun batek bilera batera joateko eskatu zionean. Duela hamabi urte izan zen hori, 1986an, eta harrezkeroztik bertan izan da lanean etengabe, era militantean, musu truk.

Mikel Aizpuru Historiako ikasketak bukatzeaz zegoen 1986an. Urte hartan 36ko gerra hasi zeneko 50. urteurrena bete zen, eta UEUk gai horren inguruko ikastaroa antolatu nahi zuen. Aizpuru gai hori bera ari zen fakultatean lantzen, eta ikastaroa koordinatzen zezan eskatu zioten. Koordinazio lan horretatik hasi eta, pixkanaka, UEUn lanean sartu zen bete-betean, duela lau urte zuzendari izendatu zuten arte.

Euskara bultzatzeko lan handia egin beharra dagoela dio. Euskarazko irakasleak nabarmen egin du aurrera, eta bertako kideek UEUren helburuak lortzeko bidean urrats garrantzitsuak egin dituzte, haren ustez. Euskal Unibertsitatea egituratzeko, arlo zientifikotik euskara lan tresnatzat hartzeko eta ikasle, irakasle eta profesionalen topagunea lortzeko helburuekin ari da lanean Mikel Aizpuru UEUn.



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Alkate anderea

Hilaren hamabortzean handia izaten da, izaten denez, bestondoa. Iratzartzearekin batera, ohartzen gara iragan dela bederatzi eguneko festa giroa eta gure buruari galdetzen diogu ez ote den dena ametsa izan, amets ederra eta ez ote den orain amesgaiztoa hasiko. Ni esnatu behintzat, eta oraintxe konturatu naiz Barcina dela nire herriko alkatea. Hauteskundeak egin zirenetik, egia erran, hiri honetan Sanferminetako afera orok hartzen du toki nagusia. Ondoren jalez zirriaturik eta orain, aldiz, ba hausnarreran hasteko unea heldu da, eta, hantxe ikusi dut emakume hori, lorian, garaile, harrotua, (harroa baita), Iruñeko seme-alaba guztiei, mehatxukor, aginte-makila, eskua gora, erakutsita. Jatorriz burgostarra, Bilboko ezker aldean hazia, baina beti begirada Neguri aldean pausatua izan duena. Honat ikastera etorri (OPUSen urrina dario), lanean hasi eta Otanoren ondotik, ba, Madrilgo PPren aginduei jarraiki, Santzek postu bat eskaini eta Yolanda gustora onartu zuen, emakume andanak Corellakoari ezezkua eman ondoren. Bi hitzok mugatzen dute alkate anderearen izaera: aginduzalea eta goranahia. Nork daki ez ote duen Diputazioko aulkia begiz joa izan. Auskalo. Nolanahi ere, Barcina bezala, oro har, UPNkoak oilartuta daude, eta, konparazio batera, Arellanok aipatu du hezkuntzatik dirulaguntzarik hartzen ez duten ikastolek ez luketela sos pizarrik ere jaso behar izan. Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzatik. Agorra buru gainera datorkigun honetan, espero dezagun agorraldiak irailetik harata ez irautea.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- Lizarra:** Astelehenean hasi eta osteguna arte Musika Tradizionalen Jaialdia ospatuko da San Nikolas plazan. Kontzertu guztiak 22:00etan hasiko dira; astelehenean Alboka taldea izanen da, asteartean Hego Amerikako Alturas taldea, asteazkenean Clau de Lluna Kataluniakoa, eta ostegunean Benito Cabrera bakarlari kanariarra.
- Zangoza:** Datorren ostegunean, 21:00etan, Pablo Sarasate Orkestraren kontzertua izanen da Karmengo entzutegian, Rossini, Elgar eta Schuberten lanak joko dituzte, Carlos Dominguez zuzendariaren gidaritzapean.
- Viana:** La Venganza de la Abuela, Barricada taldeko El Drogasen proiektu berria, zuzenean ikusteko aukera izango da datorren ostiralean.

ERAKUSKETAK

- Zangoza:** Atzo hasita, Eukeni Callejoren zeramika erakusketa izango da ikusgai Zangozako Vallesantoro jauregiakultur etxean, abuztuaren 4a arte.
- Lizarra:** Gustavo de Maeztu museoan txanpon zaharren erakusketa izanen da egunotan. Astelehenean izan ezik, egunero egonen da zabalik, goizetan 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldetan 17:00etatik 19:00etara. Igande eta jaiegunetan, goizeko 11:00etatik 13:30etara.

ZINEMA

- Zangoza:** Datorren asteazkenean, Zangozako Udalak antolatutako Udako Zinema zikloaren barnean, Roberto Benigniren *La vida es bella* film arrakastatsua izanen da ikusgai. 22:00etan, Karmengo txokoa.

BESTELAKOAK

- Zangoza:** Argentinako Rosarioko Nafar Etxeko dantzari taldeak eta Zangozako Rocamador dantza taldeek bihar dantza emanaldia eskainiko dute Karmengo Entzutegian, 20:30etatik aurrera.

- Corella:** Bihar, 12:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, Uretako Festak udal igerilekuan. Etzi 09:00etan Yerga mendiaren igoera mendi bizikletan. Udal kiroldegian proba hasi baino ordu erdi lehenago eman daiteke izena. Federatuek 1.400 pe-

zeta, eta gainerakoek 1.600 pezeta.

- Iruñea:** Urtxintxa Aisialdirako Eskolak ikastaroa antolatu du abuztuaren azken astetik irailaren 30era. Klaseak, 09:00etatik 14:00etara. Interesa duenak dei dezala 948-21-14-78 telefonora, goizean.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—¿Por qué no habla castellano, señor Pedro?
—¡Ay, neniña, en galego nunca s'escribiron os recibos das contribucións!

- Zergatik ez duzu gaztelaniaz hitz egiten Pedro Jauna?
- Gallegoz ez zutelako inoiz zergetako paperik eskribatu!